

Anekdota bat eleberri egina

'Azpimarrak' liburua argitaratu du Nerea Baldak • Azpimarratutako liburu bat du oinarrian

Naroa Torralba Rodriguez
Donostia

Abiapuntu argiarekin hasi zen *Azpimarrak* (Erein, 2023) nobela idazten Nerea Balda (Irurtzun, Nafarroa, 1975). Haren lagun bati gertatu zitzaion anekdota batean oinarritu baitzen: «Bigarren eskuko liburu bat erosi zuen gertuko lagun batek. Aurreko jabearen izen-abizenak ere idatziak zituen liburuak, eta konturatu zen ezagutzen zuela; aspaldiko laguna zuen». Kasualitate «polita» iruditu zitzaion idazleari, istorio bat hasteko «material» modura hartzeko.

Ramiro Pinilla eleberri laburren saria irabazi ostean idatzi du lana, eta, Uxue Razkin Erein argitaletxeko editoreak esan duenez, sariketara aurkeztu zuen alearen testutik ez du kasik ia ezer aldatu Baldak. Aurretik ere irabazi zuen sari bera, eta *Atzerrian* (Pamiela, 2019) argitaratu zuen harekin.

Bi protagonista ditu eleberri laburrak: Selva eta Andreu. Azken horrek autobusean ahaztuta utziko du azpimarrak jositako liburua, eta Selvak hartuko dio. Aurreko jabea nor den ohartzen deanean, baina, iragana etorriko zaio Selvari; aspaldiko lagun baitu Andreu.

Hor hasiko da «hari-muturrez» jositako eleberria. Horiei jarraitu diela aitortu du idazleak.



Askotariko harremanak ageri dira, eta nabaritutako da familiarren eragina ere. Ama izateko gogoa du Selvak, baina ikuspegia aldatuko du»

«Buruan bueltaka ditudan horiekin egin nahi nuen zerbait, eta liburu forma hartu du. Ipuin bat izango zen hasieran, eta begira»

Nerea Balda
Idazlea

Gizarte gaiak tartekatatu dituelako kontakizunaren barruan. Maitasuna, «zentzu zabalean ulertuta», baina baita zalantzak, erabakiak eta beldurrak ere. Selvak ama izan nahi du, eta amatasunez ere mintzo da, beraz, liburua:



Nerea Balda idazlea, atzo, Donostian, liburua eskuetan duela. GORKA RUBIO / FOKU

«Askotariko harremanak ageri dira, eta nabaritutako da familiarren eragina ere. Ama izateko gogoa du pertsonaia nagusiak, baina gertakizun batek ikuspegia aldatuko dio». Gaineratu du amatasunaren gaiak azken hamarkadetan garapen bat izan duela: «Nik uste dut garai batean emakume bat adin batera iristen zenean horizela tokatzen zitzaiona. Egun, badago hori zalantzan jartzen duenik, eta defendatu beharko genukeen aukera bat ere bada».

Bi ikuspegietatik
Narratzailea orojakilea izanagatik, protagonisten bi ahotsak tartekatatu ditu idazleak. Hori Erein argitaletxeak proposatu ziola kontatu du Razkinek: «[Ramiro Pinilla] lehiaketa irabazi ondoren iritsi zitzaigun lana. Edukia mantendu dugun arren, egiturari erreparatu diogu bereziki, ikuspegi osoa izan dezan irakurleak». Hala, kapitulu bakoitza pertso-

naia baten ikuspegitik kontatu dute, eta, Baldak esan duenez, editoreak iradoki dizkion moldaketak egitea «lan polita» izan da.

Literaturaren aldarria da liburu hau, bien iritziz. Askotariko azpi-

marrak egin dakizkiokelako eleberri bati, baina irakurle bakoitzaren arabera izango dira denak. Razkin: «Literaturako irakurle diren artean batak azpimarratzen duena ala besteak

markatzen duena ezberdina izaten da askotan; horrek asko esaten du bakoitzaren inguruaz; liburuan, Selva eta Andreu jazoiko zaie horretaz ohartzea, baina bizitza errealean ere hala da». Baldak aitortu du, bera irakaslea izaki, azpimarrari garrantzi berezia eman ohi diela: «Garrantzitsua dena azpimarratu ohi dugu normalean, eta, eleberri honetara ekarriz, amaieran ikusi ahalko da zer den garrantzitsua».

Bueltak eman ostean, idatzi

Punta s'Arenellako (Girona, Herrialde Katalanak) itsasargiak elkartu zituen noizbait Selva eta Andreu. Horrek iraganera gerturatuko ditu biak, eta baita sailhetsezin izango duten elkarren zalantza eta minetara ere. Baldak esan du zaurgarritasuna eta horrekiko tolerantzia bizitzan «aldatzen ahal zaigula»: «Kezkak sortu egiten diren antzera moldatu eta berrituz egiten dira; edozerk jar dezake kinkan gure erabaki bat».

Ez ditu gaiak ausaz landu: «Buruan bueltaka ditudan horiekin egin nahi nuen zerbait, eta liburu forma hartu du. Ipuin bat izango zen oso hasiera batean, eta, begira, eleberria da eskutan daukaguna». 2020ko itxialdia baino lehen hasi zen idazten, baina baztertu egin zuen eta aurrerago berrartu.

Euskal Filologian lizentziatua da Balda, eta ogibide du Bigarren Hezkuntzan Euskara eta Literatura irakastea. Bi eleberriez gain, Zerokotan elkartarekin *Dardarak* poesia liburua atera zuen. 2018an, Iruñeko egile berrientzako literatur lehiaketan lehen sariak jaso zituen.

SAN TELMO MUSEOEA

Asteartetik igandera: 10:00-19:00
www.santelmomuseoa.eus



Museoen Nazioarteko Eguna

Francisco Escudero Kontsebatoreko ikasleak: 11:00 + 12:00 + 13:00

Udaleko Musika eta Dantza Eskolako ikasleak: 19:00
Museorako sarrera doan izango da

STM

San Telmo Museoa

BERRIA TALDEAK BANAKETA ARLOKO KOORDINATZAILE BAT BEHAR DU

BERRIAren banaketan koordinazio eta jarraipen lanak egingo dituen pertsona baten bila gabiltza; banaketa intzidentziak kudeatu beharko ditu, banaketa azpiegituraz arduratu beharko du, eta banatzaileekiko harremana bere gain hartu.

Eskatzen da:

- Enpresa kudeaketa edo administrazio arloko ikasketak, edo baliokidea den ezagutza.
- Bulegoko programari informatikoen ezagutza (kalkulu orriak, datu baseak).
- Euskalduna izatea (gutxienez EGA edo baliokidea den euskara maila).
- Harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna.

Kontuan hartuko da:

- Kudeaketa eta antolaketa lanetan eskarmentua izatea.
- Pertsonen edo lantaldeen koordinazioan esperientzia izatea.

Eskaintzen da:

- Kontratu iraunkorra.
- Egun osoko lanpostua.
- Lantokia Andoainean.

Interesa duenak bidali curriculum, maiatzaren 22a baino lehen, 'BK-23' erreferentzia zehaztuz, helbide honetara: gizabaliabideak@berriataldea.eus